

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

**Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren 2046/2019 FORU AGINDUA, uztailaren 3koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 4ko 67/2019 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko ardura duen Epaimahaiko kideak izendatzen dituena. Foru dekretu horren bidez, 2019ko ekitaldian Bizkaian arte eszenikoen ikuskizunak (musika, dantza eta antzerkia) antolatzeke Foru Aldundiak emango dituen diru-laguntzen oinarriak eta deialdia onartzen dira (Garatu programa).**

Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 4ko 67/2019 foru dekretuaren bidez, 2019ko ekitaldian Bizkaian arte eszenikoen ikuskizunak (musika, dantza eta antzerkia) antolatzeke Foru Aldundiak emango dituen diru-laguntzen oinarriak eta deialdia onartzen dira —Garatu programa— (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 112. zenbakia 2019, ekainak 13. osteguna).

Foru dekretu arautzaile horren 11. oinarrian honakoa ezarri da: aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da. Epaimahaikideak Saileko foru diputatuak izendatuko ditu, foru-agindu bidez. Izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44 artikuluan ezarritakoa beteko da.

Oinarri horretan xedatutakoa aintzat hartuta eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauko 39.i) eta 67.1 artikuluek, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, Euskara eta Kulturako Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudia onartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 foru dekretuak eta gainontzeko baterako xedapenek Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko titularrari ematen dizkioten eskumenak kontuan harturik, eta izan daitezkeen abstentzio eta/edo errefusateen ondorioetarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23 eta 24. artikuluetan xedatutakoaren arabera, honako hau,

**XEDATU DUT:**

*Lehenengoa:* Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 4ko 67/2019 Foru Dekretuaren babesean (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala 112. zenbakia 2019, ekainak 13. osteguna), aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko ardura duen epaimahaiko kideak izendatzea eta proposamena egitea eta hura Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputaturi aurkezte, behin betiko ebazpena eman dezan. Epaimahaia honakoek osatzen dute:

- Epaimahaiburua:
  - Andoni Iturbe Amorebieta (Bizkaiko Foru Aldundiko Zuzendari Nagusia).
- Ordezko epaimahaiburua:
  - Ana de Castro Rubalcaba (Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara Zuzendari Nagusia).
- Epaimahaikide titularrak:
  - Gerardo Ayo Meabe (Kultur kudeatzailea).
  - Begoña Gonzalo Casal (Kultur kudeatzailea).
  - Montserrat Petralanda Gorrotxategi (Bizkaiko Foru Aldundiko Argitalpenen eta Kultura Zabalkundearen Ataleko burua).
- Ordezko epaimahaikideak:
  - Amagoia Garaizabal Armesto (Arrigorriagako Udaleko Kultura teknikaria).



- Katrine Schlegel Sasiainbarrena (Kultur kudeatzailea).
- Mikel Etxebarria Etxeita (Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekintzako Zerbitzuko Burua).

— Idazkaria titularra, botorik gabe:

- Aitziber Elezcano Altuna (Kultur Ekintzako Goi Mailako teknikaria).

— Ordezko idazkaria, botorik gabe:

- Mikel Murillo Aurrekoetxea (Teknikaria kultura-proiektuen zuzendaritzan).

*Bigarrena:* Foru agindu hau interesdunei jakinaraztea, baita Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekintzako Zerbitzuari ere, dagozkion ondorioak izan ditzan.

*Hirugarrena:* Agintzea foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

## AZKEN XEDAPENA

### **Azken Xedapen Bakarra.— Indarrean jartzea**

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean foru agindu hau.

Bilbon, 2019ko uztailaren 3an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,  
LOREA BILBAO IBARRA